


# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1998ko abenduak 23 • 158. zka.



**Gabon,  
Gabon,  
Gabon ...**

**Urteari erreparasua egiteko garaia**

**Errege-opila**

*Zorionak*



**ARETXABALETA OKINDEGIA**

Loramendi, 6 ☎ 943 77 17 19 Mitarte, 1 ☎ 943 77 00 81

# Non eta zelan ospatzen dituzu Gabonak?

**Itsaso Barbero**  
(Langilea)

Etxean biltzen gara familia osoa ondo afaldu eta ospatzeko. Afaldu ostean kalera irteteko ohitura daukat Gabon gauen Eskoriatzara, Gabon Zaharretan hemen eta Errege gauen Bergarara.



**Tomas Diaz**  
(Langilea)

Ni Errioxakoa naiz eta han etxean familia giroan ospatzen dut, inguruko herriren batera ere irten izan naiz.

Errioxan ez daukagu Olenzterorik eta Erregeek ekartzen dizkigute opariak.



**Josu Iriarte**  
(Ikaslea)

Atxabaltan ospatzen ditut Gabonak, familian bilduta. Gabon Zaharretan afal ostean kalera irteten dut lagunekin ospatzeko.

Opariak Olentzerok ekartzen dizkit.



**Iruñe Lacalle**  
(Langilea)

Etxean familia giroan, afari berezia egin eta gabon kantak abestuz.

Olentzerok ekartzen ditu opariak eta Erregetan ez dugu ezer berezirik egiten.



e s k u t i t z a



## Aretxagazeta egoitza berrira

1998a bukatuaz doa eta urtearen balantzea egitean bazkideak ditugu gogoan. Eskerrik asko bazkide zaharroi beste urte betez gurekin izan zaretelako eta ongi etorri berrioi gudanako apostua egin baituzue. Eskerrik asko Aretxagazetan publizitatea jartzen duzuen guztioi ere, jakin badakigu askok gure herriko aldizkariari laguntzarren egiten duzuela.

Egun gutxi barru egoitza berrira joango garelara aditzera eman nahi dizuegu. Gabonak arte itxaron dugu aldaketa lasaiago egiteko eta honela urte berriari lokal berrian emango diogu hasiera, udaletxe zaharreko 2. pisuan. Bertan Atxabalta Telebistarekin batera egongo gara eta ez dago esan beharrik atek zabalik dituzuela edozein kontsulta, iritzi

emate edo protesta egiteko.

Bukatzeke, abenduaren 24an udaletxe zahararen inauguraketa ekitaldia egingo da goizean. Arratsaldean, berriz, herritar gutzientzat atek zabalik egongo dira bertako lokalak ikusteko.

Gure helbide berria:

**Aretxagazeta aldizkaria**

**Durana 11**

**Postakutxatila 151**

**Aretxabaleta**

**Tfnoa: 943 79 86 21**

**Faxa: 943 79 54 11**

**Eskerrik asko eta Gabon zoriontsuak Aretxagazetako batzordearen partez.**



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi Elkarte, Durana 11, 151 postakutxatila, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 86 21. Faxa: 943 79 54 11. **Erredakzio-kontseilua:** Iruñe Iturbe, Alberto Izagirre, Gotzone Arrese, Aitor Irure, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta eta Gorka Etxabe. **Erredakzio eta publizitate arduradunak:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E.E., Udala, Euskaltegia. **Banatzatzailea:** Janette Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

## MOTZEAN

◆ Urteari hasiera ona emateko **Takolo, Pirritx eta Porrotx**en bisita jaso genuen urtarrilaren 10ean. Hiru pailasoen xelebrekeriekin umeez ezin hobeto pasatu zuten.

◆ Urtarrilaren 20an San Sebastian eguna zela eta, **tanbor hotsez** bete ziren herriko kaleak. Eskoletako umeez edarto pasa zutela esan beharra dago.

◆ IX.Loramendi literatur **lehiaketako sariak** banatu ziren hilaren 22an. Danera 177 lan izan ziren idatzizkoak eta 40 grabaketa lanak. Literatur lehiaketa honetan aurten lehendabizikoz grabaketa modalitatea ere aurkeztu dute. Parte hartze haundiaz gain, oso kalitate oneko lanak izan ziren edizio honetan.



Urtarrilaren 18an Batzokiaren bigarren inaugurazioa ospatu zen

## Batzokia berriz ere inauguratuta

Urtarrilaren 18an batzokiaren bigarren inaugurazioa ospatu zen. Gonbidatu nagusia Arzallus izan bazen ere, beste aurpegi ezagun batzuk ikusteko aukera ere izan zuten herritarrek, Egibar eta Galdos horien artean.

Inaugurazio egun honetan batzokiak kanpotik ez zuen baxtere itxura onik, aurreko gauean ezezagun batzuk hormak margotu zituzten eta.

Arzallusen mitinaren ondoren, 65 lagun elkartu ziren Taberna Berrin bazkaltzera.

### Meltxor, Gaspar eta Baltasar

Ohiko moduan urtarrilaren 5ean Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoek bisitatu gintuzten. Hiru erregeek jendetza haundia erakarri zuten kalera. Plazan ere lagun ugari pilatu zen, Ortzadarrek antolatatu zuten jaiotza biziari esker.



Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33  
Etxekoa: 79 42 56

## “ARINSA”

**Aretxabaletako industrialdea S.A.**

Basabe poligonoa “EO-10”  
Tfnoa: 79 62 80  
ARETXABALETA

## GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18  
Aretxabaleta

## UDAKo infantilen garaipena

Santiago Moralesek entrena-tzen duen infantilen taldeak garaipena lortu zuen eskualdeko lehen fasean urtarrilaren 10ean jokaturako partidari. Joko ona

erakutsi zuen Moralesen taldeak.

Garaipen honekin UDAKo talderik gazteena ohorezko mailarako igotzea jokatzeko gertatu zen.



UDAKo talde gazteenak garaipena lortu zuen eskualdeko lehen fasean

## MOTZEAN

- ◆ Urtarrilaren 5ean **Peña Zubizarreta** torneoko finalak jokatu ziren Ibarra futbol zelaian. "Construcciones Cañas" talde arrasatearra sailkatu zen lehen postuan; bigarren, "Bizkorak", hauek ere arrasatearrak eta hirugarren postua "Aston Villa" talde atxabaltarrak lortu zuen.
- ◆ Eibarko pelota txapelketan **Andoni Altube** eta **Haritz Kortabarria** txapelak izan ziren alebin kategorian.
- ◆ **Iñurrategi** anaiek eta **losu Bereziartuak** bertan behera utzi behar izan zuten Manasluko tontorrera igotzeko ahallegina.

## BESTEEK ESANA



**JON ZUAZABERTIA**

"Europak jarraitzen duen dinamikaren arabera, errekonbertsioaren bidetik haundiak indartu egin dira, txiki eta ertainen kaltetan"

"Dena den pasa al zaigu burutik urtarrileko aldapa (gora zein behera) urte osoa dela munduko hamaika lekutan?"



**MIRIAM URKIA**



"Euskal Herri mailan betidanik izan da musikarekiko zaletasun handia"

**MARTA IZAGIRRE**

"Gizartearen komunitate osoak kate luzea osatzen du, eta kate horren pieza guztien artean zelabaiteko sintonia minimoa behar da"

**INAXIO GARRO**



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**ARBULO  
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 79 02 24  
**ARETXABAETA**

**BEIRALAN**



**KRISTALDEGIA**

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

Herriko Plaza 8 ☎ 79 81 78  
**ARETXABAETA**

## MOTZEAN

- ◆ Fiskalak, **Kepa Urraren torturazailleentzat zigor murrizketa eskatu** zion Auzitegi Gore-nari.
- ◆ Herriko gazte taldeak antolatu-tuta **A.G.T. "Itoizko solidarioen"** hitzaldia egon zen. Lauroge-itik gora lagun bildu ziren Urbaltz elkartearen. Bestalde, taldearen logotipoa ere aurkeztu zen.
- ◆ Otsailaren 3an, **San Blas** egunez jende ugari gerturatu zen Sailuentera.
- ◆ Leizarra musika eskolak Julian Barrenetxea eta Aretxabaleta Abesbatzak antolatutako **Jesus Guridiren "El Caserio" opereta** izan zen hilaren 15ean.
- ◆ Otsailaren 21ean Udaleko Kultura sailak antolatutako **Karra Elejalderen "La cabra tira al monte"** antzerkiak bete-bete egin zen Zeraia zinema.
- ◆ Aratusteko lehiaketan **Dragoi txinoa** izan zen irabazlea, nagusien mailan, 16 urtetik beherakoetan, berriz, **Zapatistak**. Aurten bestalde, **Txino dantza** dantzatzen **neskak** ere ibili ziren.
- ◆ **Belorrietan egurrezko zubi** aurrefabrikatua jarri zuten otsailaren 24ean.
- ◆ Otsailaren 27an **sutea** gertatu zen **Azatzako aterpetxean**. Gela bat eta instalazio elektrikoa guztiz kixkalita gelditu ziren.



Gujerateko Adivasiak eta Inaxio Galdos

## Adivasiak gure artean

Hilaren 7an heldu ziren Aretxabaletara Indiako Gujerat eskualdeko hamabost Adivasi eta Inaxio Galdos. Eusko Jaurlaritzak antolatutako Asia-Euskadi eguna ospatzera etorri ziren.

Herrian egindako egonal-

dian, Andra Mari Parrokian eta monjen komentuan Adivasi errotora jarraituz eskaini zituzten mezak.

Bestalde, alkatearen eskutik "Aretxabaleta Saria" jaso zuten.

## Postetxea berrizturik

Otsailaren 23an postetxea ohiko lekura aldatu zen. Hiru hilabeteko berritze lanen ondoren, bulegoa guztiz eraberritua utzi zuten; barne infra-estruktura berri eta zerbitzu informatizatuaz. Honela zerbitzu gehiago eta hobeak jarri zituzten bezeroen eskura;

Beste batzuen artean, posta, telegrafo, fax, telex, gentex, burofax, argentaria eta kaja postal zerbitzuak.



**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26

**LEIBAR**  
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABALETA

**MEMESA S.L.**


*Industriaren alde*

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA

## Mendigoizaleak etxean



Manasluko tontorra lortu ezinik itzuli ziren Iñurategi anaiak etxera

Josu Bereziartua eta Iñurategi anaiak etxera iritsi ziren. Manasluko tontorrerako lau ahalegin egin ondoren, mendigoizaleak buelta ematea eraba-

ki zuten, bertako haize eta izotzarekin, aurrera jarraitzerik ez zegoen eta. Etorreran, ohikoa den bezala, Murruxok merezitako ongi etorria egin zien.

## MOTZEAN

◆ **Joseba Larrinaga** otsailaren 8an Algarben (Portugal) ospatutako **Munduko Kopan bigarren** izan zen. 5.000 metroko krossean bere debuta egin zuen Josebak.

◆ 18 urteko **Oier Garro** txirrindulari atxabaltarrak **afizionatu mailara** igo eta Arrasateko Born Jay taldean eman zion hasiera aurtengo denboraldiari.

◆ **Dorletako Ama txirrindulari eskolak**, Gure Ametsa jabetxean, 1998ko denboraldiko partaideen **aurkezpena** egin zuen hilaren 21ean.

## BESTEEK ESANA



JOSU OTXOA

"Moda mundua gustatzen zait eta aurrera jarraitu nahi dut nire ikasketekin"

"Ilargian ura (izotza) dagoela baieztatzen bada gero eta indar haundiagoarekin zabalduko da giza-kolonia ilargitarren ametsa"



JESUS ARREGI



"Gure zaharrei bizitzako azkenengo unerarte ilusioa bizirik mantentzen lagundu behar diegu"

ANTZIÑE MENDIA

"Urak etengabeko kalitate frogak egitea eskatzen du, eta horregatik urtegiko ura hiru lekutan analizatzen da"

JOSE ANTONIO ROJO



**IRIARTE**

Umeen  
denda



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 10 96



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABAleta

Zuzendaria:  
Lyonel  
Arquero

Dekorazioa:  
Soraya  
Arquero

Mobiliario  
ARENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABAleta

**MOTZEAN**

◆ Hilaren 7an, **gaztetxeko 7. urteurrena** ospatu zen. Besteak beste, trikitilariak, txistorra eta sagardo dastaketa, bazkaria, etxeko patxaran lehiaketa, eta kontzertuak antolatu zituzten.

◆ **Emakumeedako automotzio ikastaroa** antolatu zuen Aretxabaletako institutuak. Ikastaroan kotxeari gerta dakizkion oinarritzko arazoei aurre egiten ikasi zuten.

◆ **Loramendi Euskara Elkarte**a udaletxe zaharreko lokalera aldatu zen, azken hiru urteetan Pagaldaixeneko lokalean egon ondoren.

◆ Martxoko azken eguneko plenoan, **Udal aurrekontua** onartu zen, guztira 774 milioi pezetakoa.

◆ Martxoko hiru egunetan **Arabako odol bankukoak** gure herrian izan ziren.



Mikel Uribetxebarria: "Inbertsio txikiarekin kalitate ona lortu nahi da"

**Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkartearen batzar orokorra**

Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi Elkarteak batzar orokorra egin zuen hilaren 31n.

Bertan, 98ko Aretxagazetako aurrekontua azaldu ondoren, iraila eta urria bitartean, elkarte berri hau udaletxe zaharrean kokatuko zela ere

esan zen. Telebistari dago-kionez, inbertsio txikiarekin kalitate ona lortu nahi zela azpimarratu zuen Mikel Uribetxeberria lehendakariak.

Udalak, bestalde, inbertsio gastuetarako bost milioiko dirulaguntza ematea onartu zuen.

**Azuzena Kardenalen atxiloketa**

Martxoaren 21ean atxilotu zuten Azuzena Kardenal, Axu. Atxilotu eta deklarazio egunerarte manifestazioak egin ziren herrian.

Deklarazio egunean, berriz, herritik autobus batek irten zuen Madrileko Audentzia Nazionalerantz.



**Jauregi Okindegia**

Otalora, 10  
Tfnoa: 943 79 57 47  
Aretxabaleta

Izozkiteki-Gozotegia  
**IZOZKITEGI**

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABALETA



Zenbaki

Basabe  
Industrialdea C Pab.  
**Aretxabaleta**  
Tfnoak: 71 21 12  
71 22 68

**Aholkularitza**



## Errasti anaiak "Liga Vasca"-ko finalera

Errasti anaiek Liga Vascako finalera pasatzeko partida jokatu zuten martxoaren 13an. Atxabaltarrek joku ona erakutsi zuten eta 22-6 ko emaitzaz na-

gusitu ziren gernikarren aurka.

Emaitza on hau dela eta apirilaren 3an Bergaran Liga Vascako finala jokatzeko klasifikatu ziren.



Errasti anaiak 22-6ko emaitzaz nagusitu ziren gernikarren aurka

## MOTZEAN

◆ Arrasateko **Born Jai** afizionatu mailako txirrindulari taldeak partaideen **aurkezpena** egin zuen matxoaren 6an. Bertan, **Josu Estevez** zuzendaria, **Eneko Garai** zuzendari mekanikoa eta **Oier Garro** Txirrindulari atxabaltarrak izan genituen.

◆ **Murrukixo Mendi Elkar-teak** eski irteera antolatu zuen martxoaren 7 eta 8rako. Autobusa beteta abiatu zen Aretxabaletatik Luz Ardidenera.

◆ **Karate eskola** martxan jartzeko deialdia luzatu zen kiroletxetik. Deialdiak arrakasta izan zuen eta haurren taldea sortu zen.

## BESTEEK ESANA




MARIA AGIRRE

"Uretako hegaztiei dagokienez, Urkulu da Gipuzkoako tokirik aberatsena eta Euskal Herriko garrantzitsuenetarikoa"

"Gurasoen papera funtsezkoa da adolezentszian. Adolezentszia ez da etapa samurra ez gazteentzat, ezta hauen gurasoentzat ere"



IÑAKI APORTA



"Burtsan kainoi zaratak entzuten direnean erosi egin behar da eta biolin soinua entzuten denean, berriz, saldu"

JUAN MARI OTXOA

"Maiatzean, hondakinetako nazioarteko homologazioa ateratzeko asmoa daukat"

TXEMA GALLEGO



ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

Harategia  
Bereziki Urdaitegia  
Fruitategia

IMANOL  
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

MOTZEAN

◆ **Elgeako zentral Eoliko-aren** ingurugiro azterketa udaletxean aurkeztu ondoren, zentralaren plan berezia ikusgai jarri zen. Honekin batera, alegazioak egiteko epea zabaldu zen. Proiektuaren arabera 40 haize-errota ipiniko dituzte Elgeako mendilerroan.

◆ Aste Santuan zehar ohiko ospakizunak egin baziren ere, eguraldi txarraren ondorioz, ez zen Izurietara egiten den **gurutz-biderik** egin.

◆ Hilaren 24an ordu beteko geldialdirako deialdia egin zuten sindikatuek. Helburua **aste-ko 35 lan orduak** erreibindikatzea izan zen.

◆ Apirilaren 14an onartu zen legearen arabera bi seme-alaba edukita, horietan bat lanerako ez gaitua edo elbarritua bada, **familia ugari-tzat** hartuko da.

Zinemako atea itxita

Urteko denboraldia bukatu aurretik, Zaraia zinemak atea itxi zituen, azken aldian, soinua zela eta, arazoak izan zirelako. Udalak zinemaren egin beharreko konponketen aurrekontu desberdinak aztertuko zituela adierazi zuen, ondoren, ikerketa bat egin eta zinemak konpontzea merezi zuen erabakitzeko.

Cruz Maria Ansoalde zinemako esplotazioa daraman enpresako arduradunaren ustez,

kabina konpondu beharko litzateke lehenengo, baita oinarri berria jarri ere. Apirilaren 30ean, Udalak eta Ansoalde enpresak zine emanaldiekin zer egin erabakitzeko batzar bat egin zuten.

“Ekipoa aspaldikoa dela kontuan izanik, ezinezkoa da gaur egungo aparatuek daukaten soinua ona lortu”, izan ziren bere hitzak.



Zaraia zinemako atea apirilean itxi ziren



Loramendi Euskara Elkartearen urteko batzar orokorra

Iazko aktaren eta ihardueren berri emanen hasi zuen Loramendi Elkarteak apirilaren 23an burutu zen batzar orokorra. Elkarteko sail ezberdinak banan-banan aztertu ziren bertan.

Batzarrean jakitera eman zenez, 98ko helburuetariko bat komertzio eta dendariekin duten hitzarmenarekin burubelarri jardutea izan zen. Horretarako beste teknikari bat kontratatzeko asmoa ere azaldu zen.

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 77 13 57

## Karate eskolaren sorrera



Haurren karate taldea sortu zen

Apirilean jarri zen martxan karate eskola kiroletxean. Herriarregan karatearenganako afizioa sortzea zen ideia honen helburuetako bat eta herriarregan erantzuna ezin hobea

izan zen, haur batzuk lekuri gabe geratu ziren gainera.

Odilo Vazquezek zuzendutako taldeak martizen eta eguenetan egiten zituen entrenamenduak.

## MOTZEAN

◆ **Felix eta Albertok**, Juanjo San Sebastian, Jon Lazkano eta Karlos Tamayo mendizaleekin batera, Nepaleko bidea hartu zuten. **Dhaulagiri** mendiko tontorra egitea zen euren helburua.

◆ Iberdrola taldeko **Iban Sastre** Atxabaltarrak, bigarren postua eskuratu zuen Valladolideko Itzulian.

◆ Apirilean zehar, **frisbée, patinaia eta street-hockey** ikastaroak egon ziren kiroletxean. Binakako **pala txapelketa** ere hasi zen.

◆ **Arlutz saskibalo** txapelketari hasiera eman zitzaion apirilean; guztira sei taldek eman zuten izena.


BESTEEK ESANA




JULITA GONZALEZ

*"Basotxoko bazkide izateak abantaila ugari eskeintzen du. Jende gehiago animatu beharko litzateke ekintza hauetara"*

*"Aurrejubiliazioa oso garestia aterako da aurrerantzean"*



PATXI LAZKANO



*"Chiapaseko borroka egunerokoa da eta badirudi komunikabideek ekintza larri bat gertatzen denean bakarrik ematen diotela garrantzia"*  
JULEN COBOS

*"Baina argi! kirolak arazoak sor ditzake, bereziki gehiegi praktikatzen badugu, intentsitate gehiegiz edo oker praktikatzen badugu"*

LOREA GARAI



## ORTOPEDIA ORTO LAGUN

Ortopedia teknikoko zerbitzua eskaintzen dizugu

**Jai zoriontsuak!**

Kontzezino 2 • ARRASATE •  
Tfnoa: 943 79 89 34

### Gure tailerlean eginak:

- Korseak eta aparailu zuzentzaileak
- Hankentzako plantila bigunak: plano-balgoak, kabo eta mingarriak.
- Deskarga plantilak kirolarientzat.

### Bazar sailean:


- Belaunetakoak, orkatila-babeslea, eskuturrekoak.
- Lanerako suekoak.
- Lunbago eta ziatika arazoentzako neoprenoak fajak, eta elastiko erosoak.
- Gurpildun aulkiak, aluminiozkoak, arinak, elektrikoak eta tolesgarriak.
- Ohe artikulatuak, gaixoak eramateko gruak, komundun aulkia, eskaren aurkako aire eta urezko koltxoak.

**MOTZEAN**

◆ **Urkuluko urtegia** bere urkapazitatearen %98,3an aurkitzen zen hil honen 11. egunean. Apirila eta maiatzean jausitako ur kantitate haundiaren ondorioz, 20 zm. falta zitzaizkion gainez egiteko. Apirila izan zen hilerik euritsuena 146 litroekin. Josetxo Saizar, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko arduradunak urtegiak maiatzean zuen ur maila ikusita, aurten eta datorren urtean ur arazorik ez zela izango aurreratu zuen.

◆ **Jose Mari Armentia, Aretxabaletako EAko lehendakari** berriaren aurkezpena egin zuen Eusko Alkartasunak maiatzaren 15ean Alkartetxe berrituan.

◆ Bederatzi urteko 36 neska-mutikok **Jaunartzea** egin zuen maiatzean. Aurten gainera elizkizunak elebidunak izan ziren.



*Aretxabaletako Institutuan "Erraminten mekanizazio eta fabrikazioa" ikasturteko diploma banaketa*

**Diploma banaketa Institutuan**

Aretxabaletako Institutuak "Erraminten mekanizazio eta fabrikazioa" ikastaroko ikasleei diploma banatu zien maiatzaren 7an. Juan Antonio Rodriguez alkatea, Desiderio Vicente lan saileko zuzendaria eta Foru Aldundiko ekonomia saileko Guillermo Etxerrika izan ziren

besteak beste ekitaldian.

Esatekoa da, ikastaroa burutu zuten ikasle guztiak lanean hasiak zirela berau bukatu aurretik. Honen arrakasta ikusirik, 99rako soldadura ikastaro bat eskeintzeko asmoaren berri eman zuten Aretxabaletako Institutukoek.


**Euskararen egunetik Otxal-Zelaira**

Maiatzaren 14-15a, ekintzaz beteriko asteburua izan zen. Zapatuan euskararen eguna, eta domenkan, berriz, Otxal-zelaiako erromeria.

Musika, jolasak, leihaketak, bazkari herrikoia... ondo pasatzeko denetik apur bat. Astebukaera borobiltzeko gainera eguraldia ere ondo portatu zen.



**zorionak eta urte berri on**





## Iban Sastre Bidasoako itzulian garaile

Iban Sastrek, Iberdrola taldeko bigarren urteko afizionatuak, garaipena lortu zuen Bidasoako Itzulian.

Garaipen honi, Urra-kiko igoeran lortutako lehenengo postua ere gehitu behar zaio. Maiatzera bitarteko denboraldian, hiru garaipen eskuratuak zituena atxabaltar honek.

*Iban Sastre Iberdrola taldeko txirrindularia*

## MOTZEAN

◆ Maiatzaren 10ean, XX. Otxola-zelaiko krossa ospatu zen. 56 korrikalarik hartu zuen parte bertan baina inork ez zuen Kamel Zianiren 40'29"tako marka gainditu. Honetan hamabi atxabaltar helmugaratu ziren.

◆ UDA.ko infantil mailako futbolariak, mailaz igotzea lortu zuten.

◆ III. Gorrinaren bidea, korrikari egiteaz gain, oinez egin zuenik ere egon zen. Guztira bederatzi partehartzaile egon zen.

◆ Inurrategi anaiek, Dhaulagiriko gailurra egitea lortu zuten maiatzaren 30ean, beraien bederatzigarren zortzi milakoa hain zuzen.

## BESTEEK ESANA




**JAVIER MARCOS**

*"Arazo politikoa konpontzeko Irlandan erabili duten tresnak, hau da, elkarrizketak, ez al du berdin balio Euskal Herriarentzako?"*

*"Desberdinak gara baina ondo konpontzen gara"*



**ALAITZ ETA MAIDER**



*"Euskaltzaindiak ohorezko bazkide izendatzeak hala-ko xirimiri gozo baten poz freskoa ematen du"*

**JESUS ATXA**

*"Musika heziketak dibertitzeko aukera eskaintzeaz aparte, aisialdiko denbora eta eguneroko bizitza hobeto antolatzen laguntzen du"*

**MARIATXEN URKIA**



## Centro Cien

*Aurtengo gabonetan nahi dituzun opari eta jostailuak aurkituko dituzun Centro Cien-en*

*Mota guztietako jostailuak eta erregaluak*

*Plazan gaude, zatoz zure opariak erostera!*

*Zorionak eta Urte Berri On!*

**MOTZEAN**

- ◆ Herriko argazki artxiboko taldeak, **Gerra Zibilaren** inguruko **erakusketa** jarri zuen San Juan-etako astean zehar ikusgai Paga-daixeneko lokalean. Arrakasta haundikoa izan zen gainera.
- ◆ Ohitura den bezala, aurten ere **San Juan Sua** egin zen ekainaren 23an. Datorren urteko Santa Ageda mutilek **tantaiaren** igoe-raz euren tartetxoa izan zuten gau honetan; pinu mehea baina dotore askoa igo ere.
- ◆ **Elkarri** gizate mugimenduak **Eraiki proiektua** aurkeztu zuen udaletxean ekainaren 10ean. Hizlaria, Fernando Arzallus Tailer Nazionalako kidea izan zen.
- ◆ Ekainaren 14an **Narrea Ene-kotegiren** kontzertua egon zen Zaraia Zineman kultura sailak antolatuta. Leizarra musika eskolako txistulariek ere eskeini zuten beraien musika saioa.
- ◆ **Enkarni Genuak** "Galtzagorriak" obra antzeztu zuen Udal liburutegian ekainaren 18an. **Txon-txongilo emanaldi** hau 5-10 urte bitarteko haurrei zuzenduta egon zen.
- ◆ Ekaina hasieran 97 urteko memoria eta balorazioa egin asmoz, prentsaurrekoa eskaini zuen **Gizabidea Fundazioak** Hezibideko egoitzan. Fundazioak 98 bukaerarako 1.000 milioiko kapitala izan nahi zuela aurreratu zuen.



Errekabarren-Loramendi errepide berria zabalik dago

**Errekabarren-Loramendi bidea zabalik**

Errekabarren eta Loramendi kaleak lotu eta Belorrieta auzotik pasatzen den errepidea ekainaren 29an zabaldu zen.

Bide berri honi bi baden egin zizkioten kotxeen abiadura jeisteko, eta era berean oinez-

koen zeharkagune funtzioa ere betetzeko. Aipatutako bide zati honi, gainera norabide bikoitza jarri zioten.

Pasialeku zabal eta txukuna jarri zuten bai errekaren alde batean baita bestean ere.

**Akordeioa hartuta Finlandiara**

Finlandiako Ikaalinen herrian ospatutako "Sata Hame" akordeoi jai-aldira joan zen Jose Orobengoaren orkestra pasa den ekainaren 30ean.

Autobusez egin beharreko bidaia luzea izan zuten akordeo-olariek: Hamburgo, Copenha-



ge, Estocolmo, Turku (Finlandia), eta bukatzeko Ikaalinen.

Hamabi herrialdeetako orkestrek 70 kontzertu eman zituzten bertan.



*Euskal preso eta errefuxiatuak etxean behar ditugu*

*Urte Berri On benetako bakearen bidetik*

## Almeneko futbol taldea, Gipuzkoako txapeldun



Almeneko lehen urteko kadeteen taldea

Almen futbol taldeko lehen urteko kadeteak Gipuzkoako kopako txapeldun izan ziren. Jesus Arregi eta Asier Ingiduak

zuzentzen duen taldeak Zumarragan jokatu zuen finala Añorga taldearen aurka. Honetan, Almenekoak 4-2 nagusitu ziren.

### MOTZEAN

◆ Joseba Larrinagak bigarren postua eskuratu zuen Milanen ospatu zen lau nazioarteko txapelketan.

◆ 245 partehartzaile izan ziren kiroletxean ospatutako IX. Eskolarteko Olinpiadan.

◆ Ekainaren 6an ospatutako **Pedro Guenetxea Memoria-lean**, kadete mailako 84 txirrindularik hartu zuen parte. Horietatik 48k lortu zuten amaitzea. Helmugaratzen azkarrena Ander Zulaika, Atxukale taldekoa izan zen.

◆ UDAko txirrindulari taldeari esker **Haur txirrindulari festa** ospatu zen lehendabiziko aldiz hilaren 14an. Herriko 40 neska-mutikok Eskoriatzara joan etorria egin ondoren, ginkana probetan euren trebetasunak erakusteko aukera izan zuten.

### BESTEEK ESANA



UNAI LOIDI

*"Gaur egungo zenbait telebista programak ikuslea tontozat hartzen du, eta inuzentel! deitzen dio"*

*"Gaztetan pelota beti poltsikoan eramaten genuen"*



JOSE SAN MIGUEL




*"Gurasook laguntzaileak izan behar gara, baina ez egile, bigarren lerroko begiraleak, aholkulariak."*

BIRGINIA ARMENTIA

*"Abestietan gaur egungo arazoei irtenbide bat ematen saiatzen gara, gizarte aktibo bat inplikatu asmoz"*

IBAN GONZALEZ



ARETXABALETA  
ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

PAGALDAI  
Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
ARETXABALETA



**Esko Sport**

Intxaurtxueta, 5 ☎ 71 52 96  
ESKORIATZA

*Esko Sport-ek  
jai zoriontsuak  
opa dizkizue*

Larunbat  
arratsaldetan

## MOTZEAN

- ◆ Uztailaren 6an **udaleku irekiei** hasiera eman zitzairen herrian. Bertan 3 eta 14 urte bitarteko 280 neska-mutil ekin ziren.
- ◆ Hasiera batean **Portasolgo** jaiak antolatzeko herritarrik ez bazegoen ere, azkenengo momentuan gazte talde bat aurkeztu zen. Hauek, ilusio eta gogo handiz antolatu zituzten **San Lorentzoak**.
- ◆ **Jugoslaviako 26 akordeolari** inguru etorri zen herrira uztailaren 17an. Bertan egindako egonaldian, kontzertu arrakastatsua eskeini zuten parrokian.
- ◆ Hilaren 18an, giroz betetako festa antolatu zuen **Aratz-ek** Apotzan. Jolasak, bazkaria, eta dantza egiteko aukera izan zuten bertara hurbildutako 50 partaideek.
- ◆ **Cristobal Altube** herriko abeslari ospetsuaren 100. urterrena izan zen uztailaren 10ean.

## Ikas dezagun menpekotasunik gabe bizitzen

AFAPA-k, Arabako Gizakia Helburu-ko Senide eta Lagunen Elkarteko Deba Garaiko Taldeak, uztailaren 3an drogen legez kanpoko salmenta eta erabilera desegokiaren aurkako nazioarteko eguna antolatu zuen herrian.

Giza katearekin eta trikitilariarekin eman zitzaion hasiera egun honi. Lehenengotan jendeari animatzea kostatu bazitzaion ere,

bukaerarako parte hartzaile kopurua asko gehitu zen.

Ondoren, Juan Antonio Rodriguez, Aretxabaletako alkateak, manifestuaren irakurketa egin zuen. Herriko hainbat taldek ere parte hartzeko aukera izan zuen, Loramendi Dantza Taldeak eta Aretxabaletako Abesbatzak beste batzuen artean.



Giza katean jende askok parte hartu zuen



## Kalegarbitzaile enpresa berria

"Zerbitzu Elkarte", Urolako kalegarbitzaile enpresa berria izan zen herriko kaleak garbitzeko Udalak kontratatu zuen enpresa. Aurreko enpresari, IZA-ri, bost urterako kontratua maitzaren 3an bukatu zitzaion eta Udalak zerbitzuaren kontratazioa osterakaleratu zuen.

"Zerbitzu Elkarte" enpresa kanpotarra izan arren, bertan lanean hasitako langileak atxalbarrak dira.

**FARMA BIZI**

■ Parafarmazia  
■ Kontsulta naturista

Gabon Zoriontsuak

Loramendi, 8 Tfnoa/Faxa: 943 77 18 18

**Zapatak** eta  
**larruzko** gaiak  
konpontzen dira

Luis Antonio Gonzalez

Sarasate, 1 (behea)  
Tfnoa: 943 79 41 44

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

*Lorionak*

Mitarte, 16 • 943 79 61 42



## Naranja Mekanika Arlutz futbito txapelketako garaile



Aurtengo txapelkunak. Naranja Mekanika

Uztailaren 21ean Arlutz Futbito txapelketari amaiera eman zitzaion. Azken partidu honetan, DDK eta Naranja Mekanika lehiatu ziren, azken

hauek, 5-2 emaitzarekin garaile izanik.

Orokorrean, jokalariek maila bikaina erakutsi zutela jakinez, zuten antolatzaileek.

### MOTZEAN

◆ Pala txapelketako finala uztailaren 10ean jokatu zen. Amaierara ez zen atxabalarririk pasatu. Arrasateko **Gari-taonandia anaiek**, Bergarako **Irureta-Alberdi** bikotearen aurka jokatu zuten eta partidu honetan Bergararrak izan ziren nagusi.

◆ **Udako kirol jarduerak** zirela eta, badmintona, tenisa, mahai tenisa, pilota, igeriketa, aerobika eta piraguismoa, uztaila osoan zehar praktikatu ahal izan zen. Guztira 80 pertsona inguru aritu ziren.

◆ Lehenengo **Arlutz futbito txiki txapelketa** antolatu zen pasa den uztailerako. Txapelketa hau 13 urtetik beherakoei zuzenduta egon zen.

BESTEEK ESANA




JON MOLINA

*"Gaur egun elizara joaten direnak benetako fededunak dira eta hori positiboa da"*

*"Hemen Interneta hain azkar ez sartzeak, gure gizartea 'sanoa' dela esan nahi du, non jendea etxetik irten eta erlazioz egiten den"*



ALBERTO IZAGIRRE



*"Futbolak, saskibaloiak, txirrindularitzak,... Ikurrinaren koloreekin euskaldun egiten gaituzte?"*

KEPA ANTIXIA

*"Elkartasun eta laguntza haundia aurkitu dut bailara honetan"*

SEBASTIAN URIBETXEBERRIA



**Martín**  
RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

**RKU**  
URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Faxa: 943 77 10 33

**Maritxu**  
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETA

**Etxabe**  
harategia

Durana 4  
☎ 79 16 61

MOTZEAN

◆ **Parrokiak** Europako hainbat leku bisitatzeko **bidai**a antolatu zuen. Paris, Eurodisney, Bruselas, Londres,... bertan ibili ziren 37 lagunek ederto pasa zuten nahiz eta neka neka eginda bukatu.

◆ Abuztuaren 13an bukatu ziren **Iturigorri frontoiko** berrikuntza lanak. Paretak margotu eta graden estalkia jarzea izan ziren berrikuntzaren azkeneko lanak.

◆ Andra Mari jaien ostean makina bat **trafiko seinale** apurtu eta botata azaldu ziren. Horietatik lau Mitarte kalean zeuden eta bostgarrena Duranan, azken hau zezenak hautsi zuelarik. Norabideak errazten zituzten seinaleek izanik, berehala hasi ziren bere lekuan jartzen.

◆ **Joseba Larrinagak** Birmingham-go helbarritu mailako munduko txapelketan parte hartu zuen. 5.000 m.ko lasterketan eta maratoin lehia zuen, bosgarren eta bigarren postua eskuratuz hurrenez hurren.

◆ Abuztuaren 18an **B mailako Errealak** eta **Eibarrek** partidu amistosoak jokatu zuten. Banako emaitzarekin amaitu zen aukera eta sorpresa gutxiko partidua. Errealeko gola Barkero atxabaltarrak sartu zuen eta Eibarkoa Garitanok.

Andramaixak

Gustu guztietarako aukerak eskaini zituzten aurtengo jaietan gure antolatzaileek, zenezaleentzako zezenak, gau luze eta martxosoak gaurtxorientzat, hainbat jolas ume eta gaztetxoentzat, kirola-

rientzat txirindulari lasterketa eta pelota partidu interesgarriak... baita herri bazkari goxoa ere. Nahiz kalean, nahiz txosnetan, musika, umore ona eta martxa ez ziren falta izan lau egunetan zehar.



Jai batzordearen ahaleginak bere fruituak eman zituen. Zorionak!



**Iber**

★ Loteria ★

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2  
Tfnoa: 943 79 04 39

**CONSUM EROSKI**

*Orain arraindegi  
eta okindegiak, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



# Gabon zaharretako kotilioia

*Urdaiazpikoa eta Solomo Iberikoa*

*Zainzuriak bi saltsatan*

*Foie hotza Sagar-Purearekin*

*Vieira Txangurroz Betea*

*Otarraintxoak Plantxan*

---

*Salda Jerezeko Ardoan*

---

*Kantauriko Legatz Gorenak Arrainparrilan*

---

*Solomillo Zentrua Bere Lagungarriekin Errioxa Ardo Erari*

---

*Tarta Banilla Ixozkiarekin eta Masusta Gorriko Couliak*

---

*Gabonetako Turroi Aukera*

---

*Ardoak: Etxeko Krianza Beltza*

*Gran Feudo de Chivite Ardo Gorria*

*Cava: Bossuet*

*kafea*

**Dantzaldia: 1999ari Ongi etorria**

*Prezioa: 8.750 pta. (BCL-a barne)*

## MOTZEAN

◆ Irailaren lehenengo astelehenean **Arantzazura** egindako **pegrinazioan** herritar ugarik parte hartu zuen. Lau autobus hurbildu ziren bertara, baita oinezko batzuk ere.

◆ **Izurietako** San Pedro elizan obretan hasi ziren, teilatua konpondu eta eliza kanpotik eta barrutik margotzeko asmotan.

◆ **Agorreko Andramaixak** ospatu zituzten Arientzan. 11, 12 eta 13ko astebukaeran hainbat ekintza antolatu zituzten auzokideek.

◆ **Gripearen kontrako kanpainari** irailaren 14an eman zitzaion hasiera.

◆ Irailaren 20an ospatutako **Haur dantzarien egunak** 350 dantzari batu zituen. Loramendi dantza taldeaz gain Oñati, Arrasate, Eskoriatza, Bergara, Antzuola eta Soralezekoak parte hartu zuten.

◆ Apotzaetxebarritik **Apotzara** dagoen **bidea** txukuntzeko obrak hasi ziren. 200 metro inguruko tartean oinezko eta bizikletentzako bide eroso egiteko asmoa zegoen.

◆ Landeta baserria bota eta **Ederlanek pabilioi berria** eraikitze lanak hasi zituen. Baserriaren lekuan aparkaleku berria egiten hasi ziren eta lehenengo aparkalekuan, berriz, pabilioi berria.



Euskaltegiaren egoitza berria Nafarroa kaleko 2. zenbakian dago

## Udal euskaltegiak egoitza berria

13. urtea bete zuen Udal euskaltegiak, leku berrian eman zion hasiera ikasturteari. Loramendi, Aretxagazeta eta telebista, udaletxe zaharreko edifiziora pasatzean, Nafarroa kaleko 2. zenbakira etorri beha-

rra izan zuen euskaltegiak, obrak egin eta lokala horretarako egokitu ostean.

Aurreko urtean bezala 13 bat talde osatu ziren, gehienak euskara ikasteko eta gutxi batzuk EGA ateratzeko.

## San Migelak

Iraileko azkenengo astebukaeran ospatutako jaia, euskal giro politean burutu zen. Produktu biologiko eta artisauen feriek hasiera eman eta herri bazkari, asto lasterketa euskal dantza eta Andoni Zubizarreta atezain ohiari omenaldia ere izan ziren larunbatean.

Bukaera igandeko txirrindu-



lari lasterketak eta herri kirolen ikuskizun politak eman zioten.



# LASAGABASTER-ek

*jai egun zoriontsuak opa dizkizue*

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## Kurtzebarri eguna



Giro polita egon zen Mendiolan.

Irailaren 13a egun euritsua izan zen eta Kurtzebarri eguneko ospakizun guztiak Mendiolan egin behar izan zituzten. Jon Molinak elizkizuna zuzendu ondoren, elizpean triki-

tilariak, txanpaina eta salda egon zen gerturatutako guztiarentzat. Eguraldi txarraz beldurtu gabe Kurtzebarri ton-torreraino igo zuenik ere izan zen.

## MOTZEAN

◆ **Almeneko** Gazte eta Kadete mailako **eskubalo**i taldearen aurkezpena egin zen Leintz Gatzagan.

◆ Dorletako Ama txirrindulari eskolako jubenilek **XVII. San Migel Txirrindulari lasterketan** parte hartu zuten. Irabazlea Imanol Juez gasteiztarra izan zen.

◆ **Julen Larrinaga** atxabalarrak, azken bi urtetan Bermeoko taldean arraunean aritu ondoren, hurrengo denboraldiari Arraun Lagunak talde donostiarrean eman zion hasiera.

◆ **Preferente mailako UDA**ko taldearen denboraldi hasiera ona izan zen. Denboraldi aldaketak entrenatzaile aldaketa ekarri zuen, Iñaki Ceciaga arrasatearrak postua hartuz.

## BESTEEK ESANA



INES M. GARZIA

*"Hustutasun hori tristura bihurtzen da kalera irten eta denda, tailer, bulego eta zerbitzu gehienak oporregatik itxita daudela ikusterakoan."*

*"Ez dut autobusean joan naizen urterik gogoratzen."*



MARIA JOSEFA GARCIA-ETXABE




*"Baina nor biziko da herri honetan?"*

OIER ETXEBARRIA

*"Jesuiten heziketan etorkizuneko Venezuelan pentsatu behar dugu eta hezkuntza hortik bideratu."*

JUAN JOSE OLABE



## ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

Z o r i o n a k

• JUANTXO URDAITEGIA	79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
• LEINTZ-ROSI	79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	79 96 43

## Bedarreta taberna

# Bedarreta

*Beti bezeroen zerbitzura*

Otalora, 19 ♦ Tfnoa: 943 79 20 89

## Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

# Josu harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 77 03 08

## Kixkor taberna

# KIXKOR

Mitarte, 13 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 60

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

## Arlutz taberna



*Gustoko musika*

Mitarte, 16 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 32 34

## Artano taberna

Herriko  
plazan  
ARTANO

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75


## Basabe jatetxea

*Menu eta  
afariak*

# BASABE JATETXEA

Basabe poligonoa • 943 79 91 84

## Goyaran erretegia



*• Pimila espezialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABALETA  
☎ 943 79 68 57

## Express akeitegia

# Express akeitegia

*zure gustoko giroa*

Santa Kurtz, 16  
☎ 943 79 23 43

## Gurea taberna

Jatetxea eta  
taberna

# GUREA

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

# IZOTZ TABERNA

## Dorleta taberna

# Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 94 15

## Mitartegarai

*Mitartegarai  
Jatetxea*

Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 17 51



## Amets taberna

# AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaleta

## Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345




♦ Bazkari  
eta afariak

Astelehenetan  
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## MOTZEAN

- ◆ Urtero bezala, urriko lehenengo zapatuan 65 urtetik gorakoek **jubilatu eguna** ospatu zuten. Meza ostean, bazkari goxoa, opariak eta dantzaldia izan zituzten kiroletxean.
- ◆ Urriaren 7an, **egin berria** **kaleratzeko** proiektuaren berri eman zuen Mikel Zuazabeitia Baietz fundazioko kideak. 1.000 milioiak lortzeko 100 mila pezetako akzioak salgai jarri eta jendearen laguntza eskatu zuen bertan.
- ◆ **Produktu eta dantza erregionalen** bigarren edizioa ospatu zen urriko bigarren domekan. Bertan parte hartu zuten eskualdeak Gaztela Leon, Errioxa, Galizia, Extremadura, Andaluzia eta Euskal-Herria izan ziren.
- ◆ Diru laguntzen murrizketa dela eta **haur eskolen egoera larriaren** aurrean, Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundeak deituta urriaren 17an, Donostian, manifestazioa burutu zen. Aretxabaletatik jende asko hurbildu zen bertara.
- ◆ Aretxabaletan kokatutako Diara Desing enpresak **EURO truke kalkulagailua** merkatura atera zuen; pezeta eta euroaren arteko aldaketa egiteko oso kalkulagailu erreza eta diseinu bereziduna.
- ◆ Urriaren 22an ordenantza fiskalei buruzko **osoko bilkura** ospatu zen. Igoera gehienak IPC-aren azpitik edo bat zetozenak izan ziren, hala nola, ura, zaborra eta kiroletxeko tasak.
- ◆ **Azuzena Cardenal** zazpi hila-betetan kartzelan egon ostean, bere aurkako frogarik ez eta urriaren 23an **aske** utzi zuten bi milioiko fidantzapean.



Kolektorea pasako den kaleen planua

## Kolektore sarea sartzeko lanen hasiera

Erreka garbitzeko bide bakarra zela ikusirik Urriaren erdialdera eman zitzaizkien hasiera ur zikinendako kolektorea sartzeko lanei. Bailara osoan sartu beharreko kolektore hau, Aretxabaletan bi zatitan banatu zen.

Lehenengoa Belorrieta kaleko errotondian hasi eta Eder-

laneraino luzatu zen, ACS enpresak lanok burutuaz. Auzokideek pazientzia handia erakutsi zuten sortutako eragozpen eta buruhausteen aurrean.

Finantziaketan, berriz, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Ur Kontsortzioak hartu zuten parte.

## Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak

Urriaren 25ean ospatutako hauteskundeak normaltasun osoz eta parte hartze handiz burutu ziren herrian, abstentzioa % 23koa izanik.


Daturik aipagarrienak Euskal Herritarrok taldearen gorakada nabarmena, EAJ eta EA-

ren aurretik, eta Partidu Popularraren igoera izan ziren.

Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez parte hartzea % 70,6koa izan zen eta datuak: EAJ nagusi 21 eserlekurekin, ondoren PP 16rekin, EH 14rekin, PSE-EE beste 14rekin, EA 6rekin eta IU-EB eta UA binarekin.

ARETXABALETAKO DATUAK	EH	EAJ	EA	PSE	IU	Partido Popular	Unidad
Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 94	984	842	554	505	162	171	9
Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 98	1344	908	574	510	154	348	9
UDAL HAUTESKUNDEAK balira, lortutako zinegotziak	5	3	2	2	0	1	0

## Gimnasio berria martxan



*Kirol zinegotzia, alkatea eta kirol teknikaria makina berriei begira*

Gimnasio berriari urriaren 3an alkate eta kiroleko zinegotziak beren oniritzia eman ostean, lagun ugari hurbildu zen makina berriak probatzera. Makinaria berri honen eros-

ketak 1.400.000 pezetako gastua suposatu zuen.

Bestalde gela haundi bat ere egokitu zen 2 milioiko gastuarekin aerobic, karate eta gimnasiako klaseak emateko.

## MOTZEAN

◆ **Gazteen xake talde berriak**, Gipuzkoako 3. mailako liga jokatzen hasteko ilusio handiz hasi zituen prestaketak.

◆ Urriaren 17an Aretxabaletako kirolesteak antolatutako **squash txapelketari** hasiera eman zitzaion 16 partehartzailerekin, horietatik 3 atxabaltarrak.

◆ Urriaren 18an jokaturako 98-99 denboraldiko **Mondra** eta **UDA** ren arteko lehenengo **derbia** atxabaltarrentzat izan zen 0-1eko emaitzarekin.

◆ **J.J. Barkero** 19 urteko atxabaltarrak, urriaren 25ean bere lehen partidua jokatu zuen **Errealarekin** lehenengo mailan. Sanse taldean denboraldi ona egiten ari zela eta deitu egin zuen Krauss entrenatzaileak.

EULALI BARANDIARAN




*"Hamar urterekin Gasteizera joan nintzen lanera, handik Donostiara eta gero Bilbora"*

MIKEL URIBETXEBARRIA



*"Lehenengo frogekin gabonetan hasi nahi dugu"*



*"Nire ametsa Athletic-en jolastea zen, gainerakoa amestu ere egin gabekoa izan da"*

ANDONI ZUBIZARRETA



*"Kosovon hildako, zahar, haur, emakume nahiz gizonek prezio altua ordaindu dute beste nazioarteko gizakion begirada galduen aurrean"*

IGONE ZUBIZARRETA



*"Herrialde batean gurean dagoen bezalako elkarte bizitza egotea benetan gauza positiboa eta aberasgarria da"*

IRATXE BENGOA

BESTEEK ESANA



# Aretxagazetako erreportaiak lehiaketa


- 1.- Lehiaketa honetan Aretxabaletan ikasi edo bizi den edonork har dezake parte.
- 2.- Hamasei urtetik gorakoa izan beharko da.
- 3.- Lan guztiak euskaraz izan beharko dira.
- 4.- Hiru orrialdeko luzera izan beharko du (1.200 hitz inguru). Lanak eskuz nahiz ordenagailuz onartuko dira.
- 5.- Gaia Aretxabaletakin lotutakoa izan beharko da.
- 6.- Lanak banaka nahiz taldeka entregatu ahal izango dira.
- 7.- Aurkezteko epea: 1999ko otsailaren 12a, Aretxagazetako lokalera ekarri beharko dira (Durana, 11).
- 8.- Irabazleen izenak 1999ko otsailaren 25eko alean argitaratuko dira.
- 9.- Sariak:
  - Lehena: 20.000 pta.
  - Bigarrena: 10.000 pta.
- 10.- Lanak sobre itxi baten barruan entregatu beharko dira, kanpoko aldean lanaren izenburua, eta gaitzizena adieraziko da.
- 11.- Gaiaren originaltasuna, euskera, datu bilketa... baloratuko dira.
- 12.- Erreportaiak Aretxagazetaren esku geratuko dira eta Aretxagazetak nahi duenean argitaratu ahal izango ditu hala iritziz gero, beti egilearen izenarekin sinatuta.
- 13.- Epaimahaiak lehiaketa sari barik  
utz dezake eskatutako maila lortzen ez bada.


**Idazteko zaleasuna baduzu,  
har ezatu parte beldur barik!**

Euskadiko kutxak Gabon  
zoriontsuak eta Urte Berri  
On bat opa dizue



*Euskadiko kutxak lagundutako  
erreportaiak*

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



Paper denda  
**J. URIARTE**  
Tamayo taldekoa

- Arte ederretan
- Oparietan
- Agendetan
- Idazketan
- eta paperean *liderra*

*Paperaren kontzeptu berria*

Ferrerias kalea, 32 Tfnoa: 943 77 03 80  
ARRASATE

Iragarki hau kaxan aurkeztuz  
gero %10eko deskontua:

- Agendetan
- Idazketan
- Arte ederretan

**%10**

MOTZEAN

◆ Loramendi euskara elkarte-ak urtero bezala, **eskola arteko X. Loramendi literatur lehiaketa** antolatu zuen. Lehen hezkuntza eta DBHko ikasleei luzatu zitzaien deialdia.

◆ Azaroan jarri zuen Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren Topaguneak **Kultur Errota** proiektua martxan. Bere helburua Euskal Herriko kulturgile guztiei euren lana zabaltzeko zirkuitu bat eskaintzea zen. **“Biluma”** atxabaltar bikotea ere proiektu honetan sartuta egonik azaroaren 22an eskeini zuen bere kontzertua herrian Xabier Muguruzarekin batera.

◆ Herriko **23 gazteri soldaduskara** joateko deialdia egin zitzaizen azaroaren 13an burutuak zozketan.

◆ Azaroak 23an Udaletxean ospatutako **osoko bilkuran** 9 puntu aztertu ostean, aho batez onartu zituzten guztiak.

◆ Santa Zezilia eguna ospatzeko **Leizarra Musika Eskolako** ikasleek **kontzertua** eskaini zuten Zاراia zineman.

◆ **Kolektore lanak** Bizkaia kaletik Araba Ibilbidera pasa ziren hilabete honetan. Ondorioz kale hau itxi eta Portasol alde-ara Loramendi kaletik joan beharra egon zen.

# XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari!

Kanpaina honen helburua hego Euskal Herrian euskararen normalizazioa bizkortzea eta iparraldean bultzada handi bat ematea izan zen. Hau lortzeko, berriz, bi alderdi jorratu nahi izan ziren, batetik euskara elkarteak bateratuta lan egitea eta bestetik, eragile sozial eta politikoak parte hartuzera bultzatzea.

Kanpaina honetan hiru ekin-tza garrantzitsu planteatu ziren: herri batzordeak antolatu eta akordio soziala herriratzea, la-nordu bat euskararen alde ematea eta abenduaren 26an jaialdi erraldoiak egitea.

Kanpaina honi eta batez ere euskarari laguntzeko Aretxabaletan ere herri batzordea sortu nahi izan zen. Bertan elkarte ezberdinetako kide eta herrita-



Kanpainako kartela

rrek parte hartu zuten. Beraien lana, berriz, propaganda banatu, eragile sozialekin hitz egin, ikuskizunak prestatu, ... izan zen.



**Haurrei zuzenduriko kanpaina Unicef-ek**  
Unicef erakundeak **Haurren Ahotza** programa jarri

zuen martxan, haurrek eta gizar-teak orokorrean haurren eskubideei buruz informazio gehiago izan zezaten.

Azaroaren 21ean, 8 eta 11 urte bitarteko herriko 190 haurri, eskubide bat aukeratu eta bozkatzeko aukera eman zitzaion. Huetatik 122k parte hartu zuen eta botu gehien lortu zuen eskubidea familia izan zen 52rekin, ondoren pakea eta azkenik nortasuna eta elkartasuna botu kopuru berarekin parekatuta.

**Angel Zubillaga Garcia-Etxabe**  
**Mapfreko ordezkaria**

**Zorionak eta Urte Berri on!**

Errekabarren, 3 Tfnoa-Fax: 943 77 11 76 ARETXABALETA



**MAPFRE**  
**Aseguroak**

## Behobia-Donostia, gero eta atxabaltar gehiago



Autobusean joan zirenak lasterketa aurretik

Urtetik urtera haunditu egiten da lasterketa honetara herritik joandako partehartzaile kopurua, baita neska kopurua ere. Aurten 37 izan ziren 21 Km.ko ibilbidea egitera animatu zire-

nak, hauetatik 5 neskak.

Batzuk hobeto eta beste batzuk okerrago bukatu arren denak bat etorri ziren oso esperientzia polita izan zela esatean.

### MOTZEAN


◆ **Dorletako Ama txirrindulari eskolak** txirrindularitzan hasi nahi zuten 13 eta 18 urte bitartekoei izena emateko deialdia luzatu zieten.

◆ **Iñurrategi anaiak** hilaren 19an **bueltatu** ziren Chinatik, "Al filo de lo imposible" programarako grabaketak bertan behera utzita.

◆ Kiroletxeko **gimnasioko** makina bakoitzaren erabilpena ezagutzeko oinarritzko **ikastaroa** antolatu zen kiroletxean.

◆ **Murrukixo ME-a** hurrengo urterako **federatu karnetak berritzten** hasi zen. Federatze-ko modalitate aldaketa ere egon zen, europakoa desagertu eta maila horretan federatze-ko mundu mailakoa aukeratu beharra egonik.

### BESTEEK ESANA



ANJEL LOIDI

"Zuzentzea ondo dago, baina ez al da hobe eraiki eta egiten diren lan guztiak ondo egiten ari diren zaintzea?"

"Oso momentu gogorra izan zen libre geratuko nintzela jakin nuena"



AZUZENA CARDENAL



"Konturatu al zarete nola dagoen gure auzoa?"


DEIANE MADINABEITIA

"Momentu honetan eskulanak modan daude"

ROSA DEL AGUILA



*Gabon zoriontsuak  
pasa ditzazuela eta  
Urte Berri On guztoi*



MOTZEAN

◆ Azaroaren bukaera eta abenduaren hasieran egindako euri-jasen ondorioz **Urkuluko urtegia** goraino bete eta **urez gainezka** azaldu zen hainbat egunetan.

◆ Hilaren 11an, eguakotxa, **Bai euskarari eguna** ospatu zen herrian. Eguraldiak ez bazuen lagundu ere, eskoletako umeeke giro polita jarri zuten kaleetan trikitalari, buruhaundi eta txistularien laguntzaz.

◆ Pasa den abenduaren 12an Eskoriatzako **Gellao auzoko** biztanleek Gellao Aretxabaletako auzo bihurtu edo ez **bozketa** egin zuten, Eskoriatzako Udaletxeak antolatuta. Bertako emaitzak 22 botu alde eta 2 abstentzio izan ziren. Foru Aldundiari honen berri eman ondoren, honelik izango du azken hitza.

◆ Datorren urtera begira 3. adinokoentzat **INSERSOk bainuetxetara** joateko **programa** atera du. Otsaila eta abuztua bitartean joan nahi dutenentzat izena emateko epea urtarrilaren 18an bukatuko da. Iraila eta abuztua artean joateko, berriz, maiatzaren 17 arte dago.

◆ Abenduaren 24an, Gabon, **udaletxe zaharrean kokatutako elkarte**en, Loramendi Euskara Elkartea, Atxabalta telebista, Aretxagazeta eta Saretxoren, lan leku berrien **inaugurazioa** egingo da. Eguerdiko 12,30etan agintarien bisita izango da eta arratsaldeko 6-etatik aurrera herritar guztientzat zabalduko dira ateak.

◆ Datorren urteko urtarrilaren 10ean **Iñaki Sarasua** marianista atxabaltarrak, aurreko egunean Donostian **apaiz** izendatu ostean, bere lehenengo meza emango du herrian.

Udaletxeko ohiko osoko bilkura

Pasa den abenduaren 14an ohiko osoko bilkura ospatu zen Udaletxean. Bertan 13 gai izan ziren aztergai:

- 1.- Aurreko bilkuretako akten onarpena.
- 2.-Gipuzkoako errepideen egitasmoa hiru zatitan aldatzeko mozioa aurkeztu zuen HBk:
  - a. Plana atzera botatzea hobeto azter dezaten.
  - b. Bailara honetan eraginik ez duela izango eta, distantzia luzeetan bakarrik, plana berrikustea.
  - c. Plan honen ordez Gatzaga eta Landako biztanleek aurkeztutako plana azter dadila.
- Hiru puntuen bozketa egin ostean 3 botu mozioen alde eta 7 aurka agertu ziren.
- 3.- Arrasateko Udalaren kapital aportazioa. Arrasateko Udalak 98.200.000 pta. emango ditu Aretxabaletako Industrialdea garatzeko.
- 4.- Partiden arteko diru transferentziak.
- 5.- Lur sailen trukaketa. Udalaren

- 10.000 m<sup>2</sup> inguru Industrialdearen 1.000 m<sup>2</sup> urbanizatu eta eraikiberri-gatik trukaturako dira.
- 6.- Leizarra Musika Eskola eta Udalaren arteko hitzarmena.
- 7.- Liburutegiko laguntzaile posturako eskariaren aurkezpena. Batxilergo edo LHa eta 3. hizkuntz eskakizuna eskaturako dira.
- 8.- Aurreko lanpostuaren oinarrien onarpena.
- 9.- Banko Gipuzkoano eta Udalaren arteko hitzarmena. Bedarreta auzoko lurren araudi aldaketagatik Banko Gipuzkoanok 14 etxebizitza eraikitzeko lur sail bat emango dio Udalari. Berak, berriz, 24 etxebizitza eraikiko lituzke.
- 10.-Kobratzeko dauden eskubide eta kobraketen baja.
- 11.- 22 B-C zonaldeko (Belorrieta) estatutu eta oinarri ezarpena.
- 12.-89 zenbakidun garajearen esleipena Nuria Segoviari 1.500.000 pezetatan.
- 13.- Galdera eta eskariak.

Izurietako eliza konponduta

Irailan hasi ziren Izurietako elizaren konponketa lanak. Teilatua oso egoera txarrean zenez, hasieran hori konpondu eta barrua margotzea baziren ere helburuak, azkenean lan gehiago egin behar izan dute.

Egurrezko lurra erabat ustelduta zegoen eta horren ordez baldosa jarri da hilobiak zeuden lekuan, kolore ezberdina sartuz. Liturgiko araudiak eskatzen dituen aldaketak ere egin dituzte, bataioko ponteak aurrera ekartzea esaterako. Sakristian zegoen Jesus haur barrukoa ere berreskuratu eta bistara atera da. Santu guzti hauek mojek garbitu eta txukundu dituzte.

Zazpi milioi eta erdiko gastua egon bada ere, gehientsuena or-




Herritar guztiak gonbidatuta daude inauguraziora

dainduta dago Udaletxe, Foru Aldundi eta Elizbarrutiaren laguntzaz, baina auzoa ere oso ondo portatu dela esan beharra dago milioi bat eman baitu.

Izurietako lehenengo eliza erromanikoaren hainbat aztarna ditu oraindik honek, baita Kristo gotikoa eta Jesus haur erromanikoa ere, beraz, ezagutu nahi duenak inaugurazioa datorren abenduaren 24an izango da arratsaldeko 4,30etan.

## Jon Sarasua eta Iñurrategi anaiei buruzko liburuak kalean



Pasa den Durangoko liburu azokan atxabaltar bat protagonista duen liburua kaleratu zen eta orain egun gutxi beste bi atxabaltarri buruzko bat.

Bata Joxerra Garziak idatzitako "Jon Sarasua, bertso-ispiluan barrena" da. Bertan Jon Sarasua bertsolariari egindako elkarrizketa jaso du Joxerrak, bertsolaritza gai nagusia izanik, eta Alberdania argitaletzeko Zerberri sailak argitaratu du.

Bestea Kutxak Iñurrategi

anaiei buruz atera duena da "Gure Himalaya". Bertan 1990 eta 1997 urte bitartean lurreko mendirik garaienetan bi anaiek izandako esperientziak jasotzen dira. Herri ezberdinetan egin izan dituzten ikus-entzunezko saioetan oinarritua dago liburua eta Koldo Izagirre izan da idazlea. Testuaz gain 223 argazki ere badaude. Gabon hauetarako opari ezin hobeak izan daitezke hiru atxabaltarri buruzko bi liburu hauek.

## Kontzentrazio isila 31n Udalak deiturik

Astelehenean Aretxabaletako Udalak bildu eta, lehenengo aldiz partidu politiko guztiak bateraturik, zera erabaki zuen Senideak egindako proposamenari erantzuna emanez:

na emanez:

Senideak egindako eskariari erantzunez eta Osoko Bilkurak presoak Euskal Herrira hurbiltzearen aldeko hartutako erabakia-ekin koherenteak izanik, Aretxabaletako Udalbatzarrak herriko bizilagunei dei egiten die aben-

duaren 31n arratsaldeko 6,30etan Herriko Plazara ager daitezen bertan egingo den kontzentrazio isilera. Honen ostean komunikatu bat irakurri eta "Hator-Hator" Gabon kanta abestuko da.

Aretxabaletako Udalbatzarra



Xakeko hirugarren mailan jokatzen duen taldea

## Xakean indartsu

Xakean gogor dabilta bi talde atxabaltarrak. Hirugarren mailan dagoen taldeak, liga bukatu du eta bigarren mailarako igoera fasea jokatzeko klasi-fikatu da. Hemen lau partida jokatu beharko dituzte. Taldekoek igoera zail ikusten duten arren, ahaleginak behintzat egingo dituzte. Ea ba emaitza ona eskuratzen duten Joseba Altube, Esteban Romero, Kepa Balenziaga, Andoni Carrasco eta Aitor Botek osatzen duen taldeak.

Bestalde aipatu behar Santamasetako xake txapelketan atxabaltarrak izan zirela nagusi.

## Squash-ean oñatiarrak nagusi

Joan den zapatuan, hilak 19, bukatu zen ki- roletxean jokatu den squash txapelketa. Finalean bi oñatiar aritu ziren lehen postua eskuratzeko borrokan eta azkenean Asier Murguzur nagusitu zitzaion Garikoitz Ibarzabali. Bi oñatiarrentzat izan zen, beraz, lehen eta bigarren postua. Hirugarren Gorka Madinabeitia atxabaltarra sailkatu zen, eta laugarren Xabier Isturiz arrasatearra. Esatekoa da Juan Antonio Varilla atxabaltarra Bailarako klasifikazioan hirugarren sailkatu dela Asier Murguzurrekin batera, baina Aretxabaltan ez zuen emaitza onik lortu lesio baten ondorioz.



Asier Murguzur irabazlea, Xabier Isturiz eta behean Garikoitz Ibarzabal eta Gorka Madinabeitia

**1.- Aretxagazetaren bilakaera nolakoa izan da?  
2.- Momentu honetan nola ikusten duzu?  
3.- Hobetzeko zer aldatu beharko luke?**



**Agurtzane Elkoro**


1.-Poliki-poliki gero eta gehiagora joan den proiektu bat izan da. Herri

komunikabideen proiektuak indartzen ari direla ikusiz, Aretxagazetaren kasuan ere gauza bera gertatu da. Hasierako urratsak ez ziren bat ere errezak izan, lagun talde bat Jokin Antxiaren gidaritzapean hasi ginen lanean, lan tresna justuak genituen, diru gutxi eta ideia asko. Denborarekin gauzak hobetzen joan ziren eta zeuden ideia asko osatzen joan ginen.

2.- Gaur egun proiektu solido bat ikusten dut. Hamabostean behin kalean dago eta atxabaltar askoren etxean. Gainera, gaztelaniari aurre hartzeko

gauza izan dela uste dut eta euskara bultzatzeko proiektu haundi bat.

3.- Oraindik lan asko egin behar dela ikusten dut. Atxabaltako alor asko aldizkaritik kanpo geratzen da, nahiz eta hasieran baino gauzak gehiago sakondu. Aurreko galderan esan dudan moduan, atxabaltako beste alor batzuk ikutuko nituzke, betikoak izan ez daitezkeen. Gaztelaniaz hitzegiten eta irakurtzen duten pertsonak gehiago bultzatuko nituzke aldizkarian parte hartzen. Baina orokorrean ondo ikusten dut.



**Alberto Garro**

1.-Asko aldatu dira gauzak lehenengo aldiz kaleratu zenetik. Proiektu berri guztiak bezala hobetzen eta sendotzen

joan da, nahiz eta oraindik gauza asko egon egiteko. Nik gehien gogoratzen dudana aldaketa, aldizkariaren formato aldaketa izan zen, gaur egungo formato hain zuzen. Aldaketa oso positiboa izan zela uste dut eta honek gorputz eta serio-tasun gehiago eman zion aldizkariari. Formatoaz gain, itxura aldetik ere diseinatzaile profesional batek aldizkariaren maketa berria egin zuen eta egun horretatik aurrera, nahiz eta bakoitzak bere estiloa erabili, aldizkariak oinarritzko estruktura jarraitzen du. Gainera poliki-poliki tresneria berria erosten joan da eta honek askatasun gehiago eman dio.

2.- Bilakaera honen ondorioz

garbiena atxabaltarrek ilusioz eta gogoz itxaroten dutela alea euren etxeetan da eta ez dugu ahaztu behar hori lortzeko jende askok borondatez egiten duela lan proiektu honetan.

3.- Aretxagazeta hobetzeko badago premia puntu bat, pertsonal gehiago lanean. Kontutan hartu behar dugu aldizkari bat kaleratzeko kazetari bat, diseinatzaile bat eta publizista bat behar direla gutxienez. Baina horretarako dirua behar da eta herri aldizkariak dituzten diru arazoak kontutan hartuta amets bat da hau, baina Gabonetan gaudenez egin dezagun amets.



**Duni Zuazabeitia**

1.-Hasieratik egin nintzen bazkide eta apal apal eta medio gutxikin hasi

bazen ere, oso gustora irakurtzen nuen. Garai hartan, gainera, oso gauza gutxi egiten zen euskara hutsean eta euskarazko herrero aldizkari bat egoteak asko poztu ninduen. Urteak aurrera egin ahala hobetuz joan dela ez dago esan beharrik.

2.- Gaur egun oso ondo dago, Aretxabaletak eman ditzakeen berri guztiak jasotzen direla uste dut. Herriari kartak idazteko aukera ematea ondo deritzot eta kontu zaharrak ere gustora irakurtzen direla iruditzen zait.

3.- Ez dakit zer alda daitekeen. Aldatu beharrean, behar bada, atal edo

sail berriak sar daitezke baina horrek lan eta diru kostu haundiagoa ekarriko lukeela badakit. Herrian gaizki egiten diren gauzak salatzeko bide bat ere izan daiteke aldizkaria (karta bidez oso gutxi ateratzen baitira). Udaletxeko bileretan esan eta erabakitzen diren kontuak herritarrok gustora entzungo genituzke. Auzoetako kontuak ere politik izaten dira, baita gerra denporako kontuak ere, baina behar bada gaur egun lekuz kanpo egongo liriteke.

# Inma Miguel eta Amaia Berezibar

## Kultur teknikaria eta laguntzailea

Inmak 12 urte daramatza Aretxabaletako Udaletxean kultur teknikari gisa eta Amaiak 6 hilabete inguru. Lan asko egin eta eskerrik asko gutxi jasotzen dituztela diote, baina hala eta guztiz gogoko dute euren lana.

Gabonetako ospakizun gehienak antolatzeaz arduratzen direnez, zer egongo den jakiteko beraiengana jo dugu.

- Amaia, zer nolako esperientzia izan da orain artekoa?

- Oso ona. Lehen kanpotik ikusten nituen gauzak orain barrutik ikusi eta ezagutzeko aukera izan dut eta.

- Gustoko al duzue lana?

- Inma: Lana polita da, baina aukera izan ezkerro beste bat bilatuko nuke. Eguneko ordu guztiak eskatzen ditu lan honek, nahiz eta jendeak ez sinistu, eta sarritan familiarekin egoteko denborarik ere ez dut. Nire alabek 6 urte dituzte eta oraindik inoiz ere ez ditut nik neuk Olentzero ikustera eraman.

Amaia: Jaiak aurretik antolatzeaz gain egun berean ere lanean ibili behar izaten dugu eta ez dugu disfrutatzeko aukerarik izaten.

- Andramaixak, San Migelak eta Gabonen artean zeintzuk dira antolatzeko samurrenak?

- In.: San Migelak, Loramendik antolatzen dituelako ekintza batzuk eta diru gastu txikia egoten delako.

Am.: Ekintza gehiegi antolatu gabe kaleko giroak animatzen ditu neurri handi batetan San Migelak.

- Noiz hasi zineten aurtengo Gabonak antolatzen?

- Urria bukaera aldera. Lehenengo herriko talde guztiekin bildu ginen "Negu Kulturala" programa egiteko eta ondoren ikastetxe eta Ortzadarrekin egon ginen Olentzero, Bi-



**“Poxpolin Park-a antolatzen Ortzadar dabil eta izugarritzko ilusioz eta seriotasunez gainera”**

zarzuri eta Errege kabalgata antola zezaten. Hasieran programa egin eta lana banatzen da eta gero hartutako konpromezuak bete eta beste batzuk ere betetzen dituztela begiratu.

- Zein da Gabonetarako daukazu aurrekontua?

- Bi milioi eta erdi.

- Aurten badago berrikuntzarik?

- Bai. Aretxabaletako postalak etxeetako postontzietan botako dira; herriko hiru puntutan argiak jarri di-

ra; bi pinu ere jarri dira argiekin, bata plazan eta bestea Urats-Gain aurrean eta Poxpolin Park-a ere antolatuko da haurrentzat.

- Nork laguntzen dizue guzti hau antolatzen?

- Musika Eskolak, Aratzek, Ortzadarrek eta herriko beste elkarte askok lagundu digute negu kulturaleko programarekin. Poxpolin Park-a antolatzen Ortzadar dabil eta izugarritzko ilusioz eta seriotasunez gainera, nahiz eta oso gazteak izan partaideak. Dena ondo aterako delakoan gaude.

- Umeentzat antolatutako jai edo ekintzek orokorrean arrakasta haundiagoa izaten dute?

- Bai, umeak mugituz gero gurasoak ere atzetik joaten direlako; pertsona nagusiak mugiaraztea, ordea, batzutan oso zaila da.

- Gabonetako ekintzetatik zeinek izaten du arrakastarik haundiena?

- Orokorrean denek. Olentzerokin jende asko ateratzen da eta Bizarzuri eta Errege kabalgatarekin ere bai, Eskoriatzako eta Arrasateko jendea ere etortzen baita. Denetan egoten da giro polita.

- Herritarrek eskertzen dute egindako lana?

- Ez. Normalean kritikak bakarrik jasotzen dira, baina ez bakarrik herritarrengandik, alde guztietatik baizik Udaletxetik, elkartetatik, ... Animo eta zorianak ere noizbehinka oso ondo etorriko lirakeke gogo onez lanean jarraitzeko.

- Zer eskatu diozue Olentzerori?

- Kultur Etxe berria. Kulturaren inguruan mugitzen garen elkarteok batera egon beharko ginatékela uste dut.

# Urteko jaiotza, ezkontza eta heriotzak

Arrazoi bat edo besteagatik 1998a urte garrantzitsua izan da batzuentzat

## Jaiotzak

- 98-1-9 Maialen Mendieta Altuna
- 98-1-10 Jon Ander Perez Nevado
- 98-2-6 Nahia Gomez Alonso
- 98-3-1 Sara Aranzabal Kortabarria
- 98-3-25 Alaitz Aldai Aranzabal
- 98-3-25 Julen Arriola Elexpuru
- 98-4-8 Beñat Abasolo Mujika
- 98-4-12 Kerman Armendia Etxeandia
- 98-4-20 Maddi Alberdi Ferreira
- 98-4-25 Joseba Martin Garcia
- 98-4-29 Iñigo Arenaza Epelde
- 98-5-3 Itziar Murua Otxoa
- 98-5-13 Deiane Marcos Muñagorri
- 98-5-15 Ainhoa Sanchez Garcia
- 98-5-22 Julen Urreta Iturbe
- 98-6-2 Jokin Altuna Dominguez
- 98-6-19 Matilde Aizpurua Oliden
- 98-6-20 Josu Iurre Ayastuy
- 98-6-30 Iker Lopez Uribeetxebarria
- 98-6-30 Danel Pascual Galdaera
- 98-7-16 Ander Davila Leceta
- 98-7-28 Irati Aperribai Otxoa
- 98-7-29 Ainara Merino Altuna
- 98-9-3 Unai Manero Alonso
- 98-9-11 Ariane Iñiguez Domaica
- 98-9-16 Hasier Moraleja Murillo
- 98-9-18 Nahia Tejedor Iglesias
- 98-9-24 Leyre Fernandez de Altuna Zudaire
- 98-9-26 Maria Mendizabal Unanue
- 98-9-28 Jon Navarro Maqueda
- 98-10-16 Unai Lopez Bengoetxea
- 98-11-20 Eider Luengo Barrutia
- 98-11-25 Mainer Fernandez Ledesma
- 98-11-29 Xabier Armentia Maqueda
- 98-12-2 Xabier Etxeberria Lizarralde
- 98-12-3 Ander Lopez de Armentia Urbasalgo

## Ezkontzak

- Mentxu Etxebarriarteun-Peru Bengoa
- Paula Porcel-Alberto Martinez
- Estrella Nevado-Javier Perez
- Deiane Madinabeitia-Mikel Uribetxebarria
- Aitziber Zubiria-Jesus Zugasti
- Amaia Garcia-Aitor Garmendia
- Jone Arenaza-Adolfo Fernandez
- Marilu Errasti-Jose Luis Urriolauskoa
- Arantzazu Del Fresno-Mikel Ortueta
- Catalina Borrego-Javier Perez
- Marta Berrocal-Raul Caballero
- Irune Iturbe-Joseba Igartua
- Ana Isabel Narbaiza-Koldo Gaztañaga
- M<sup>a</sup> Carmen Martin-Jose Luis Pasamar
- Begoña Arenaza-Anjel Esperasate
- M<sup>a</sup> Pilar Mendez-Edorta Murua
- M<sup>a</sup> Amparo Melgar-Javier Martin
- Miren Gurutze Martinez-Francisco Jose Onraitia
- Aintzane Lasa-Luis M<sup>a</sup> Elkorobarrutia
- Zorione Santamaria-Patxi Zugasti
- Juan Ramon Altube-Begoña Iturricastillo
- Xabier Jausoro-Agurtzane Larrinaga
- M<sup>a</sup> Reyes Campos-Angel Diaz de Mendivil
- Maite Arkauz-Manu Cebrino
- Isabel Crespo-Imanol Etxabe
- Idoia San Miguel-Jose Luis Telleria
- Mirian Manteca-Aitor Bergaretxe
- Ines Beiztegi-Fernando Bengoa
- Maite Urrutia-Alberto Isaisasmendi
- Rosa Isaisasmendi-Juan Luis Elizaran
- Arantxa Arregi-Martxi Perez
- Mari Jose Altuna-Aurelio Gonzalez
- Jaione Bengoa-Isidro Serrano
- Elena Vázquez-J. Francisco Igartua
- Nerea Maruri-Jon Zuazabeitia
- Ana Garcia-J. Manuel Ardanza

## Heriotzak

- Pedro Zubizarreta Uribetxebarria
- Juan Ibarzabal Beitia
- Prudencio Jausoro Galdos
- Donato Urrutia Elortondo
- Benita Fraile Escrivano
- Antonio Herruzo Fernandez
- Sor M<sup>a</sup> Rita Zubizarreta Elkoro barrutia
- Patxi Zubimendi Unanue
- Clemente del Teso Sandoval
- M<sup>a</sup> Josefa Uribetxebarria Gal farsoro
- Clemorisa Garcia Martin
- Eugenio Uriarte Ezkibel
- Salvador Galiano Osorio
- Iker Sanz Urrizalki
- Luis Galdos Arana
- Evaristo Diaz Fuentes
- Joakin Irigoien Saralegi
- Iñaki Elkoro Azkarretazabal
- Margarita Garcia Martin
- Francisco Horrillo
- Antonio Morales Horrillo
- Juan Sanchez Calero
- Eulalia Ingudia Bolinaga
- Ignazia Gonzalez Eraña
- Antonio Corres Narbaez
- Julian Aginagalde Aranzabal
- Sabina Zugasti Legorburu
- Angela Alvarez Morate
- Iñaki Berasaluze Garzia-Etxabe
- Julian Aranzabal Beitia
- Pedro Zaloña Zabala
- Jose Antonio Urkia Uriarte
- Felix Eraña Etxabe

Izen guztiak jasotzen saiatu bagara ere, norbait ahaztu bazaigu gure barkamenak

## *Arlutz eta Ezkutukin aurten Saloura*

*99ko Aste Santuan bi pertsonentzako bidaia  
Saloura Port Aventurarako sarrerekin*

Zozketa: 1998ko abenduaren 28an Ezkutun. Epea hilabete.

**Gabon zoriontsuak  
eta Urte berri on!**





El acuerdo del siglo XXI  
 XXI. mendeko  
 akordioa  
 L'accord du XXI<sup>e</sup> siècle

www://jaigi.com/bateuskarari

*euskarari*

Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat - El 26 de diciembre tienes un compromiso - Le 26 decembre tu as un engagement

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN



KONTSEILUA

**Oferta  
 berezia**

*Mondeo*



RS 24V 170CV 3.550.000 ptas.

GHIA 16V 130CV 2.845.000 ptas.

GHIA TD 90 CV 2.745.000 ptas.

CLX 16V 115CV/TD 90 CV 2.390.000 ptas.



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 07 44

**MUGARRI**

# Gabonetako menua

Jaki goxo ugari izango da mahai inguruan Gabon hauetan. Hona Gabon Gauean gure etxeetan aspaldi jaten ziren eta oraindik leku batzutan mantentzen diren proposamenak

## Kapoi betea

3 kilo inguruko kapoia garbitu ostean, gatzez igurtzi barrutik eta kanpotik. Barruan 2 sagar, 6 gaztaina zuritu, 6 okaran-pasa, xehetutako 50 gr. almendra eta 10 gr. trufa natural sartu eta ondoren 50 gr. gurinez kanpotik kapoia igurtzi. Ardo zuri, cognac, okela salda eta fekula goilarakada batez osatutako nahasteaz busti eta labean, aurretik 180 °Ctan berotzen edukita, sartu. 3 ordu inguru egongo da hemen, lehenengo ordua alde batera begira, bigarrena beste aldera eta hirugarrena papar aldea gora duela. 10-15 minuturo bere saldarekin bustitzen saiatu behar da.

Eginda dagoenean, kapoi barnekoa atera eta honekin purea egin, hau kapoiaren alboan osagarritzat aterako da eta.



## Bakailoa pil pilean



12 zati bakailori gatza kendu 48 ordutan. Ura egunean 3 aldiz aldatuko zaio. Gatza ondo kendu ondoren, ezkatak eta hezurak kendu eta trapu batekin ondo lehortu. Zartagin batean olioia jarri, berakatza eta piperminak kolorea hartu arte, poliki poliki sutan eduki. Berakatza eta pipermina zartagitik atera eta olioia epeltzen utzi. Olioaren erdia lurrezko ontzi baten jarriko da eta bakailo puskak azala gora dutela, bertan utziko dira, su motelean.

Beste ontzi batera atera bakailo zatiak eta gordeta genuen olioia botatzen hasi goilararekin, ontzia poliki poliki mugitzen dugun bitartean, salda sendotu arte.

## Intxaur saltsa

Kilo erdi intxaurri azala kendu eta ondo xehetu. Litro eta erdi esne berotzen jarri kanela adartxo bateaz eta 8 azukre goilarakada bota. Birrindutako intxaurrek esnari gaineratu eta su bajaran egurrezko goilaraz bueltak etengabe ematen joan, intxaurrek azpira itsasten baitira. Ez da komeni esneak irakiterik galdu egin baitaiteke intxaur saltsa. Poliki poliki sendotzen joango da eta bestela ogi birrindu apur bat gehitu, norberak nahi beste sendotu arte.

Hoztu ondoren ontzietara atera eta gainean intxaur batzuk jar daitezke apaingarri.



# Heldu zaizkigu Gabonak



Heldu zaizkigu Gabonak; batzuk alai eta besteak triste, batzuk pozik eta beste batzuk haserre, elurra egingo balu sikiera egun hauek girotzeko... Bueno, baina honez gero girotuak ditugu kaleetako argi eta apaindutako pinuei esker. Plazan jarri zen **pinua** alkatari zatarra irudituta eta egun gutxi iraun du gaixoak, eguenean bota eta eguakotxean bigarrena jarri zuten eta. Pinu batek benetan aldatuko ote ditu umeen ilusio eta nagusio esamesak?

Gabon kontuekin aurrera eginez, eguakotxean Olentzeroren mezularia heldu zitzaizen **Kurtzebarri eskolako** umei. Bakoitzak bere eskutitza eman ostean opari bana eman zuten Olentzerok ekarriko dienaren aurrerapen gisa. **Santa Rita eskolako** hurrek, berriz, Gabon kanten kontzertu bikaina eskeini zieten gurasoei.

Ama Birjina, San Jose eta hiru erregeak ere bertan izan ziren.

Gabon hauek ez dakit zuriak izango diren, baina kontzertuz blai behintzat etorri dira. Eguakotxean **Leizarra Musika Eskolako** kontzertua izan zen. Ondo joko zuten horraittio!! Hasi aurretik hainbeste entsaiatu ostean... **Aratz elkarre**ak zapaturako antolatutako ekintzak ere arrakasta haundiz burutu ziren, jendeak gogoz egin zuten txalo musikari eta abeslariari. Domekan, berriz, **Kultur Errota** barruan antolatutako ikuskizuna izan zen Ezkutu tabernan, Petti beratarra eta Patxi Kaleko gipuzkoarrak izan ziren bertan. Ahhh...neska bati baino gehiagori kendu zigun arnasa Hurbil Artolak.

Beste kontu batera sartuta, **Pirenaica** aldizkariko azken alean Zaira mendilerroa eta bertako ibilbideak agertzen zaizkigu, portadan, berriz, Urkulu, Korueta eta Kurtzebarri. Ez dira eta nolana hikoak hemen ditugun parajeak!

Bukatzeke honez gero etxe batzuetan **Atxabalta telebista** ikusi duzue, izena bakarrik bada ere ikusten dena, hasiera izan daiteke. Telebistako logotipo irabazlea, berriz, **Igotz Urzelai** izan da.

Besterik gabe nik ere Gabon Zoriontsuak desio nahi dizkizuet denoi. Eta ez ahaztu datorren urtean zerbait nahi izanez gero, udaletxe zaharrea izango garela bai Aretxagazeta eta bai ni.

## aretxazoka

### LANA

◆ Egun erdiz **kazetaritzako lanak** egiteko pertsona bat behar da **Atxabalta telebistarako**.

Baloratuko dena:

- euskara maila
- herrikoa izatea
- esperientzia izatea

Curriculum-ak udaletxe zaharrea, Durana 11, ekarri edo Aretxabaletako 151 postakutxatilara bidali. Aurkezteko epea urtarriaren 8an bukatuko da.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

**Informatikako irakaslea.**

Erref. 15330/2

**Marketing-eko irakaslea.**

.Erref. 15332/2

**Iturgina.** Erref. 14653/2



**Peoia.** Erref. 14904/2

**Programatzailea.**

Erref. 14552/5

**Igeltseroa.**

Erref. 13815/5

◆ **Lan eskaintza publikoak**

**Arrasateko Udalak**

**arkitektoa** behar du modu finkoan betetzeko. Oinarriak: Arrasateko udaletxean hartu ahal izango dira. Izena emateko epea abenduaren 24a.

**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 86 21 telefonora. Dohainik da.**

### DENETARIK

◆ Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan. Arratsaldeko 7etatik 10ak bitartean deitu eta bestela mezua utzi. Tfnoa: 919 672 669

◆ Donostia edo inguruetan pisu konpartitu batean bizi baldin bazara eta lekua libre baduzu deitu 943 79 06 75 telefono zenbakira (Saioa).

◆ Mutil amerikar batek gaztelaniazko klaseak hartu nahiko lituzke. Interesatuok 943 79 77 28 telefono zenbakira deitu gauez.

◆ Siames eta persa nahasteko katu beltz bat (lepoan zuriuneak) aurkitu da. Berri gehiago nahi duenak 943 79 01 05 telefono zenbakira deitu dezala.

# ABENDUA

24

eguna

## ESKOLETAKO UMEAK KALEETAN KANTARI

Goizeko 10,30etan Kurtzebarri eta Santa Rita eskoletako 3 eta 5 urte bitarteko umeak, txistulari eta gurasoekin batera, Gabonetako kantak abestera irtengo dute.

## UDALETXE ZAHARREKO ELKARTEEN INAUGURAZIOA

Udaletxe zaharrean kokatutako elkarte ezberdinen lan lekuen inaugurazioa. Eguerdiko 12,30etan agintarien bisita. Arratsaldeko 5-etatik 6etara bazkideentzat irekiko da eta 6etatik aurrera herritar guztientzat.

## IZURIETAKO ELIZAREN INAUGURAZIOA

Arratsaldeko 4,30etan Izurietako eliza konpondu berria inauguratuko da. Herritar eta batez ere auzotar guztiak gonbidatuta daude bertara.

## OLENTZERO

Arratsaldeko 6,30etan Kiroletxetik irtenda Herriko Plazaraino joango da, Leizarra Musika Eskolako txistularien laguntzaz.

Ortzadar taldekoek jaiotza bizia antolatuko dute eta bertan Leizarra Musika Eskolako haur abesbatzak gabon kantak abestuko ditu.



Aurten ere opariz beteta etorriko da Olentzero

26

zapatua

## JAIALDI ERRALDOIA

Bai euskarari kanpaina barruan Euskal Herriko 5 hiritan jaialdi erraldoiak antolatuko dira. Gasteizko Mendizorrotza kiroldegira joateko autobusa arratsaldeko 4etan irtengo da beheko geltokitik eta txartelak 1000 pta balio du.

28

astelehena

## DIPOSITIBA EMANALDIA

Urats Gain zaharren egoitzan "Jubilatu egunean" ateratako diapositibak eskeiniko zaizkie hirugarren adinekoei. Bi saio egongo dira, bata goizeko 11,30etan eta bestea arratsaldeko 5etan.

## PROIEKZIOA

Arrasateko Amaia antzokian Kuxta Fundazioak antolatuta Iñurategi anaien ikus-entzunezko saioa "Manaslu negu igoera eta gailurra Dhaulagiri-n". Arratsaldeko 8etan sarrera doan delarik.

## BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

28-31

5

asteartea

**POXPOLIN PARK**

Aretxabaletako Udalak antolatuta eta Ludoteka eta Ortzadarren laguntzaz, kiroletxean haurrentzako joku eta tailer desberdinak egongo dira: ludoteka, ipuin txokoa, haur parkea, marrazki txokoa,...

31

eguna

**BIZARZURI**

Arratsaldeko 6,30etan irtenda herriko kaleetan zehar ibiliko da Leizarra Musika Eskolako musikariek lagundurik.

URTARRILA

3

domeka

**KONTZERTU LIRIKOA**

Abenduan atzeratutako kontzertua Aretxabaletako abesbatzaren eskutik.

**ERREGE KABALGATA**

Arratsaldeko 6,30etan Errege Magoak Kiroletxetik irten eta Herriko Plazaraino joango dira Leizarra Musika Eskolako musikarientzako laguntzaz. Ortzadar taldekoek jaiotza bizia antolatuko dute eta Leizarra Musika Eskolako haur abesbatzak gabon kantak abestuko ditu.

**IKASTARROAK****ESKULAN IKASTARROAK**

Aretxabaletako Kultura Batzordeak antolatuta, urtarrialean emango zaie hasiera. Izena eman eta informazio gehiagorako 943 79 01 05 telefono zenbakira deitu.

**GIMNASIOKO IKASTAROA**

Kiroletxeak gimnasioko makinaren erabilera ezagutzeko eta gimnasioa nola erabili jakiteko ikastaroa antolatu du abenduaren 28 eta 29rako arratsaldeko 6etatik aurrera. Izena kiroletxean eman behar dago.

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

**Larrialdiak**

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

**Garraioak**

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



*Bizarzurik jasoko ditu erregeendako eskutitzak*



## **A** Gabon, Gabon, Gabon, daukanak eztaukanai emon Gabon, Gabon, Gabon Eguberri On

Argazki honek 48 bat urte izango ditu, baina orduan ere Gabon eguna jaiotza eta guzti ospatzen zuten. Parrokoaren etxetik atera, gaur egun Euskadiko Kutxa, eta gurdiarekin kalejira egiten zen, bertan jaiotza bizia joaten zelarik. Ama Birjina eta San Joseren papera betetzen urte askotan pertsona berberak egon ziren.

Argazkian: dantzaria **M<sup>a</sup> Luisa San Juan**; San Jose Ascension Lopez de Armentia; Ama Birjina **Enkarni Arce**; aingeruak **M<sup>a</sup> Asun Agiriano, Ana Mari Martinez**.

Eserita dauden dantzariak goitik behera eta ezkerretik eskumara: **Arantza Galdos, Bego Natxitube** (Bilbokoa), **Arantza Alzola, Maribi Kortazar, Rosita Unzurrunzaga, Belen Belategi, M<sup>a</sup> Dolores Axpe, Ramon M<sup>a</sup> Elkoro, Rosa M<sup>a</sup> Elkoro, Jose Martin Axpe**.

Txistularia: **Tomas Otxoa**. Honen atzeko umeak: **Bernardino Oianguren, Pilar San Miguel, M<sup>a</sup> Karmen Iturbe, Ana Mari Iñurrategi**.

Ezkerraldean dauden umeak: **Luis Del Teso, Begoña Lizarralde**.

**Elisabeth-ek, zure haurren  
kirol dendak, opa dizu:**

*Jai zoriontsuak eta  
Urte Berri On  
Zorionak!*



Orain, gainera, zure erosketaz datorren urtarrilaren 10ean izango den partidua palkotik ikusteko **bi sarreren** zozketan har dezakezu parte:

**Erreal-Salamanca**

**ASTORE** TERNUA

Araba Etorbidea, 18 • Tfnoa: 943 77 14 86  
20500 ARRASATE •

**ZORTE ON!**

**Aurreikuspen  
planak**

"Ezaidazu nolakoa  
zaren eta zure  
Aurreikuspen Plana  
zein den esango  
dizut"

Aurreikuspen Plan  
**MODERATUA**

Aurreikuspen Plan  
**MISTOA**

Aurreikuspen Plan  
**ALDAKORRA**

## **Euskadiko kutxak**

aurreikuspen  
planen  
eskaintza  
handitu egin du.

### ■ **Euskadiko pentsioak**

Gorabeherarik  
gabeko  
errentagarritasuna  
lortu nahi duten  
pertonentzat.

### ■ **Euskadiko pentsio mistoa**

Gehienez ere  
inbertsioaren %30  
errenta  
aldakorrean izatea  
aurrikusita dago.

### ■ **Euskadiko pentsio aldakorra**

Inbertsioak  
gehienez ere  
%40 errenta fijoan  
eta %60 errenta  
aldakorrean  
egiten dira.

Posible da dirua  
batetik bestera  
aldatzea.

Zoaz gaur  
bertan zure  
sukurtsalera  
zure premiei  
hobeto  
egokitzen zaien  
planari buruzko  
informazioa  
jasotzera.

Euskadiko Kutxan zure  
bizitza-estiloari ondoen  
egokitzen zaion  
Aurreikuspen Planari buruz  
aholkatzen zaitugu.



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

**Erantzun  
zuzena**

# centro hogar MUEBLES



a, eme interiores

sukaldeak



Sofa  
leku

GRUPO  
  
Amuebladora  
Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE  
Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxe 943.791498